

FLASH INFO

2022ko agorrilaren 2a

BERO HANDIAK: UR BALIABIDEAREN URRITZEA

Hainbat aste dira Euskal Herrian berote handiak errepikatzen ari zaizkigula eta urte hastapenetik hona euri gutxi dugula; horrek guztiak ur baliabidea urritzea dakarkigu. Hazparnealdeko eta Bidaxunealdeko sektoreak eta Garazi-Baigorri eta Iholdi-Oztibarre sektoreak dira bereiki joak.

Azken egunotan iturriak eta ibai-errekak idortzen ari direla ikusi dugu. Baliabidearen urritzeak edateko ura emateko zailtasunak ekar ditzake

Gutako bakoitzak zenbait jokamolde erraz har ditzan, honako hauek proposatzen dizkizuegu:

- **ez ura** alferrik **korritzen utz**;
- **ez** lorategiak **urezta**, soilik baratzeak eta hobe 20:00etatik goiti eta 8:00ak aitzin;
- **garbigailuak betेरik balia itzazu**;
- **ez garbi autoak** ez eta etxe hormak;
- **igerilekuen betetzea muga ezazu** eta 20:00etatik 8:00ak artean egizu;
- **ur gutxi erabiltzen duten gailuak eman itzazu** hala etxean nola lorategian.

Zure gogo onaz eta zure parte hartzeaz eskerrak ematen dizkizugu.

Arazo bereziren bat baduzu, hona jo dezakezu:

Euskal Hirigune Elkargoa Garazi-Baigorri Iholdi-Oztibarre sektorea, Learra industrialdea – Baionako errepidea - 64220 AZKARATE

05.59.57.11.83 regie-eau-secteur7@communaute-paysbasque.fr

Larrialdi zerbitzua (lan ordutegitik at): 06.37.82.11.67